



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko otsailaren 1a

22. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, ikastetxe publikoek gastu berekietarako 2014ko, 2015eko eta 2016ko ekitaldietan jasotako diruzenbatekoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (2. or.).
- Galdera, Aragoi ibaiaren ibarreko udalerrietan errepideak hobetzeko aurreikusitako jarduketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, Nafarroako Erriberan osasun garraioa kudeatzen duen enpresari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, EZBetako babes-unitateetako 2016ko diru-laguntzen deialdiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, PIN bekadunei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, Ministerioak errealidaren gaiari heltzeko deitutako bilerara ez joateko Hezkuntza Departamentuak izan dituen arrazoiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, Odol Bankuko zuzendariaren kargu-uzteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, Zangozako eskualdeko Ginekologia Zerbitzuaren egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, Nafarroako ikastetxe itunduetako irakasleen prestakuntzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, gatazka egoeran dauden adingabeei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, Bardeako Batzarrearen aurrean aurkeztutako salaketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, Iruñeko espetxeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, ikastetxe publikoek gastu berekietarako 2014ko, 2015eko eta 2016ko ekitaldietan jasotako diru-zenbatekoei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, ikastetxe publikoek gastu berekietarako 2014ko, 2015eko eta 2016ko ekitaldietan jasotako diru-zenbatekoei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko azaroaren 4ko 129. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko azaroaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeak 9-16/PES-00378 idatzizko galdera aurkeztu du. Hona hemen Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Idazki honi gehitutako artxiboan erantsi ditut ikastetxe publiko bakoitzari ordaindutako zenbateko ekonomikoak.

Iruñean, 2016ko azaroaren 21ean

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

HERRIA	IKASTETXEA	2014an, guztira	2015ean, guztira	2016an, guztira
ALTSASU	"FP SAKANA LH" IIP	75.089,90	70.356,41	70.180,38
ALTSASU	"S. MIGUEL DE ARALARII/ARALAR M.D. II" BHI	71.465,65	74.764,80	65.296,97
BARAÑAIN	"ALAIZ" BHI	55.357,45	53.966,43	60.598,23
BARAÑAIN	"BARAÑAIN" BHI	72.150,60	70.492,58	66.136,81
BERA	"TOKI ONA" BHI	64.695,95	63.641,03	62.112,38
BERRIOZAR	DBHI	46.886,30	46.419,83	59.797,25
BURLATA	"ASKATASUNA" BHI	55.805,85	54.655,87	59.705,11
BURLATA	"IBAIALDE" BHI	53.789,95	53.522,67	54.529,92
BURLATA	"BURLADA F.P." II	141.804,60	140.101,21	133.676,89
CINTRUÉNIGO	"LA PAZ" DBHI	40.845,25	40.998,95	44.768,60
CORELLA	ARTE ESKOLA	80.039,40	78.889,42	76.666,47
CORELLA	"ALHAMA" BHI	67.677,05	66.939,05	70.068,50
ELIZONDO	"LEKAROS-ELIZONDO" BHI	51.898,50	50.857,16	43.882,07
LIZARRA	"POLITÉCNICO" BHI	127.665,75	126.478,43	119.301,21
LIZARRA	"TIERRA ESTELLA" BHI	81.976,38	117.750,55	118.851,56
UHARTE	EUSKARAREN IRAKASKUNTZARAKO BALIABIDE ZENTROA	4.205,10	4.205,10	4.205,10
UHARTE	"ZUBIARTE" EUSKALTEGIA	36.045,85	34.672,26	34.672,26
UHARTE	BHI	77.071,60	76.627,78	59.782,29
IMARKOAIN	ENERGIA BERRIZTAGARRIEN GOI MAILAKO LANBIDE HEZIKETAKO IKASTETXE INTEGRATUA	71.547,35	70.969,45	68.482,08
LEITZA	"AMAZABAL" BHI	40.373,10	43.721,02	64.826,78
LEKAROS	"LEKAROS-ELIZONDO" BHI	80.636,95	79.766,34	99.710,24
LODOS	"PABLO SARASATE" BHI	56.342,60	55.973,93	55.606,49
IRUNBERRI	"SIERRA DE LEYRE" BHI	101.999,60	100.938,87	96.297,73
MARTZILLA	"MARQUÉS DE VILLENA" BHI	77.506,70	78.245,78	80.944,46
IRUÑA	"ANDRÉS MUÑOZ GARDE" HBIP	139.648,80	138.493,01	107.759,40
IRUÑA	"AGROFORESTAL" II	67.217,25	65.500,99	85.448,05
IRUÑA	"HEZITZAILE ESKOLA" II	24.165,15	41.057,74	43.258,02
IRUÑA	"DONAPEA" IIP	193.570,10	190.744,74	174.987,97
IRUÑA	"VIRGEN DEL CAMINO" IIP	207.056,30	205.269,97	162.906,53
IRUÑA	NAFARROAKO HEZKUNTZA BEREZIRAKO BALIABIDEEN ZENTROA	78.816,65	74.686,50	74.686,50
IRUÑA	"MARIA ANA SANZ" IKASTETXE INTEGRATUA	124.878,45	123.671,75	90.811,51
IRUÑA	ARTE ESKOLA	129.270,61	125.309,13	124.822,54
IRUÑA	NAFARROAKO DANTZA ESKOLA	16.042,65	15.470,56	12.603,20
IRUÑA	HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA	111.009,40	108.614,59	108.614,59
IRUÑA	URRUTIKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA	60.384,48	42.911,75	31.000,13
IRUÑA	NAFARROAKO OSASUNEN LANBIDE ESKOLA TEKNIKOA	57.593,75	56.277,55	41.852,51
IRUÑA	"BASOKO" BHI	75.879,35	74.890,60	60.126,39
IRUÑA	"BIHURDANA" BHI	76.363,15	72.496,64	83.185,28
IRUÑA	"EUNATE" BHI	60.156,85	58.434,78	58.312,61
IRUÑA	"ITURRAMA" BHI	74.182,65	72.596,29	87.572,83
IRUÑA	"JULIO CARO BAROJA" BHI	64.312,15	65.887,90	68.678,42
IRUÑA	"NAVARRO VILLOSLADA" BHI	116.860,21	114.695,56	114.748,57
IRUÑA	"PADRE MORET-IRUBIDE" BHI	76.594,62	73.994,97	87.237,23
IRUÑA	"PEDRO DE URSÚA" BHI	134.829,65	133.468,35	142.439,99
IRUÑA	"PLAZA DE LA CRUZ " BHI	110.066,05	111.857,42	122.176,32
IRUÑA	"SAN JUAN-DONIBANE" BHI	71.531,90	106.440,31	103.414,79
IRUÑA	"IÑAKI OCHOA DE OLZA" DBHI	53.775,21	53.965,82	60.656,70
IRUÑA	"FÉLIX URABAYEN" Helduen Bigarren Hezkuntzako Nafarroako Institutua	60.801,82	59.651,84	59.651,84
AZKOIEN	"RIBERA DEL ARGÁ" BHI	130.007,50	129.546,32	113.310,82
SAN ADRIÁN	"EGA" BHI	110.139,15	109.365,88	111.525,10

HERRIA	IKASTETXEA	2014an, guztira	2015ean, guztira	2016an, guztira
ZANGOZA	"SIERRA DE LEYRE" BHI	61.063,15	60.225,51	59.511,14
TAFALLA	"TAFALLA" IIP	126.046,40	124.805,87	131.468,65
TAFALLA	"SANCHO III EL MAYOR" BHI	103.888,15	102.240,71	111.666,71
TUTERA	I.I.P. "ETI"	230.089,15	226.603,68	217.437,32
TUTERA	"TORRE MONREAL" IP (HEZKUNTZA BEREZIA)	50.886,59	59.559,21	67.238,96
TUTERA	HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA	45.112,65	44.465,06	44.465,06
TUTERA	"BENJAMIN DE TUDELA" BHI	135.088,10	134.204,21	141.787,65
TUTERA	"VALLE DEL EBRO" BHI	136.663,20	137.579,06	139.699,98
ATARRABIA	"PEDRO DE ATARRABIA" DBHI	53.527,75	51.474,62	74.793,79
ZIZUR NAGUSIA	"ZIZUR" BHI	116.496,60	115.989,98	135.013,92
ZUDAIRI	"LAS AMÉSCOAS" HLHIP	28.406,90	28.406,90	31.973,37
ABARTZUZA	IKASTETXE PUBLIKOA	1.185,23	1.725,24	1.761,57
ABLITAS	SAN BABIL	3.706,39	5.861,40	5.425,36
OIBAR	GABRIEL V. CASAMAYOR	1.353,31	1.949,59	1.963,18
ALLO	LA CRUZ	1.366,24	2.147,87	2.210,76
ALMANDOZ	IKASTETXE PUBLIKOA	978,37	1.323,79	1.268,38
ALTSASU	ZELANDI IP	6.757,63	9.821,58	9.780,01
AMAIUR	IKASTETXE PUBLIKOA	1.185,23	1.730,13	1.674,72
ANTZIN	SAN FAUSTO	1.017,16	1.695,90	1.617,75
ANDOSILLA	VIRGEN DE LA CERCA	4.378,70	6.772,94	6.640,52
ANTSOAIN	EZKABA	10.985,42	14.909,55	14.528,69
AÑORBE	IKASTETXE PUBLIKOA	1.521,39	2.288,03	2.271,67
AGOITZ	SAN MIGUEL	5.219,08	7.120,63	7.330,15
ARANTZA	IKASTETXE PUBLIKOA	1.485,17	2.317,44	2.472,58
ARBIZU	ARBIZUKO IP	939,58	1.490,02	1.669,22
ARESO	NAZABAL	1.068,87	1.582,37	1.658,22
ARGUEDAS	SANCHO RAMÍREZ	3.344,38	5.401,27	5.500,47
ARIZKUN	IKASTETXE PUBLIKOA	1.392,10	2.015,87	2.007,18
ARRAIOZ	IKASTETXE PUBLIKOA	978,37	1.434,61	1.471,55
ARROITZ	IKASTETXE PUBLIKOA	1.521,39	2.189,70	2.308,61
ARTAXOA	URRACA REINA	2.736,71	3.778,12	3.692,30
AURITZ	IKASTETXE PUBLIKOA	978,37	1.434,61	1.416,14
AURIZBERRI	AUZPERRI IP	1.017,16	1.434,61	1.508,49
AZAGRA	FRANCISCO ARBELOA	5.128,58	9.681,27	9.489,21
AZPILKUETA	IKASTETXE PUBLIKOA	862,01	1.231,44	1.231,44
BARAÑAIN	ALAIZ	5.464,73	6.661,06	6.388,92
BARAÑAIN	EULZA	5.361,30	7.595,96	7.533,32
BARAÑAIN	LOS SAUCES-SAHATS	5.438,87	7.599,17	7.480,78
BARASOAIN	MARTIN AZPILKUETA	2.581,57	3.422,30	3.213,64
BEINTZA-LABAIEN	IKASTETXE PUBLIKOA	874,94	1.249,91	1.281,35
BEIRE	IKASTETXE PUBLIKOA	939,58	1.401,47	1.307,29
BERA	RICARDO BAROJA	3.137,51	5.480,51	5.452,00
BERBINTZANA	RÍO ARGÁ	1.392,10	2.101,68	1.748,60
BERIAIN	IKASTETXE PUBLIKOA	5.063,93	8.048,46	7.895,66
BERRIOZAR	MENDIALDEA I	7.869,53	14.510,07	14.166,75
BERRIOZAR	MENDIALDEA II	6.395,62	11.662,32	9.734,33
BETELU	ARAXES	2.343,64	3.484,70	3.551,18
BUÑUEL	SANTA ANA	2.827,22	4.357,73	4.345,07
BURLATA	ERMITABERRI	6.628,34	8.354,88	8.136,18
BURLATA	HILARIÓN ESLAVA	5.943,11	11.823,29	11.130,61
CABANILLAS	SAN JUAN DE JERUSALEN	2.051,48	3.048,01	3.004,97

HERRIA	IKASTETXEA	2014an, guztira	2015ean, guztira	2016an, guztira
CADREITA	TERESA BERTRÁN DE LIS	2.633,28	4.753,73	4.452,77
CAPARROSO	VIRGEN DEL SOTO	3.926,18	7.297,11	7.105,06
CÁRCAR	VIRGEN DE GRACIA	1.598,96	2.493,35	2.699,27
ZARRAKAZTELU	VIRGEN DE LA OLIVA	3.292,66	6.986,27	6.917,20
CASCANTE	SANTA VICENTA MARÍA	5.038,08	7.986,51	8.397,14
KASEDA	F.J. SÁENZ DE OIZA	1.482,60	2.234,24	2.144,35
CASTEJÓN	DOS DE MAYO	8.145,96	14.809,81	14.246,27
CINTRUÉNIGO	OTERO DE NAVASCUÉS	11.308,64	19.471,49	21.023,47
CORELLA	JOSÉ LUIS ARRESE (1)	10.360,59	16.890,42	16.503,93
CORTES	CERRO DE LA CRUZ	3.706,39	6.061,30	5.937,02
DEIKAZTELU	VIRGEN DE NIEVAS	1.379,17	2.073,99	1.870,83
DONEZTEBE	SAN MIGUEL	4.947,57	7.222,23	7.401,24
ELIZONDO	SAN FRANTZISKO XABIERREKOA	5.228,68	6.396,50	6.256,51
ERRATZU	IKASTETXE PUBLIKOA	1.288,67	1.854,53	1.816,98
ERRO	DONEZTEBE	1.043,01	1.434,61	1.526,96
LIZARRA	REMONTIVAL	10.765,62	19.674,39	18.961,73
ETXALAR	LANDAGAIN	1.702,39	2.542,81	2.561,28
ETXARRI ARANATZ	SAN DONATO	3.072,87	4.996,58	4.723,09
FALTZES	DOÑA ALVARA ALVAREZ	4.021,72	6.799,78	6.736,79
FIGAROL	NTRA. SRA. DE UJUE	900,80	1.249,91	1.296,29
FITERO	JUAN DE PALAFOX	3.137,51	5.677,20	5.557,11
FONTELLAS	VIRGEN DEL ROSARIO	1.159,38	1.688,30	1.748,60
FUNES	ELIAS TERES	3.706,39	6.003,71	5.915,43
FUSTIÑANA	SANTOS JUSTO Y PASTOR	3.590,03	5.346,42	5.214,72
GARRALDA	NTRA.SRA. DE ORREAGA	1.534,32	2.200,57	2.199,35
GARTZAIN	IKASTETXE PUBLIKOA	939,58	1.360,73	1.416,14
GOIZUETA	A. NARBARTE XALTO	1.756,66	2.689,53	2.578,15
UHARTE	VIRGEN BLANCA	9.162,43	15.753,04	16.164,68
IGANTZI	IKASTETXE PUBLIKOA	1.560,17	2.191,88	2.081,06
IRURITA	IKASTETXE PUBLIKOA	1.702,39	2.598,22	2.524,34
IRURTZUN	ATAKONDOA	6.847,94	10.662,76	11.198,15
ITUREN	PULUNPA IP	1.469,67	2.343,44	2.365,58
ITURMENDI	ARRANO BELTZA	1.081,80	1.480,24	1.490,02
JAUNTSARATS	OIHANZABAL	1.779,97	2.690,57	2.672,10
LAKUNTZA	LUIS FUENTES	2.219,55	2.986,09	3.165,29
LARRAGA	SAN MIGUEL DE LARRAGA	3.486,60	5.511,00	5.768,49
LARRAINTZAR	OBISPO IRURITA	3.189,23	4.814,62	4.822,09
LEGASA	IKASTETXE PUBLIKOA	926,65	1.508,49	1.600,84
LEITZA	ERLETA	4.326,98	6.337,29	6.710,79
LEKUNBERRI	IBARBERRI	4.919,01	7.315,62	7.483,90
LERÍN	DÑA. BLANCA DE NAVARRA	2.064,41	3.096,35	3.352,78
LESAKA	IRAIN	2.400,56	3.724,89	3.782,68
LEZAUN	IKASTETXE PUBLIKOA	874,94	1.360,73	1.344,23
LODOSA	ANGEL MARTINEZ B.	3.990,83	6.883,70	5.875,37
LOS ARCOS	SANTA MARIA	2.537,53	4.324,56	3.968,19
IRUNBERRI	DONIBANE	1.430,88	2.038,14	2.035,09
LUZAIDE	IKASTETXE PUBLIKOA	939,58	1.286,85	1.323,79
MARTZILLA	SAN BARTOLOME	4.262,34	7.500,28	7.352,64
MÉLIDA	SANTA ANA	1.288,67	2.361,35	2.235,14
MENDABIA	S. FRANCISCO JAVIER	3.318,52	4.983,53	5.169,16
MENDIGORRIA	JULIAN M ^o ESPINAL	1.637,75	2.395,05	2.468,93

HERRIA	IKASTETXEA	2014an, guztira	2015ean, guztira	2016an, guztira
MILAGRO	NUUESTRA SEÑORA DEL PATROCINIO	5.316,97	7.487,23	7.808,81
MIRANDA ARGA	SAN BENITO	1.586,03	2.146,78	2.349,49
ELO	SANTA BARBARA	1.211,09	1.748,60	1.933,30
MONTEAGUDO	HONORIO GALILEA	1.598,96	2.359,73	2.345,55
MURCHANTE	F. MARDONES Y MAGAÑA	5.038,08	7.603,59	9.249,96
MURIETA	IKASTETXE PUBLIKOA	836,15	0,00	1.748,60
MURILLO EL FRUTO	RAIMUNDO LANAS	1.366,24	2.044,65	10.513,19
MUTILOA	SAN PEDRO	5.180,29	9.500,46	2.173,49
NARBARTE	AROTZENA	1.081,80	1.563,90	14.899,24
NOAIN	SAN MIGUEL	8.490,12	15.062,14	3.294,74
OBANOS	IKASTETXE PUBLIKOA	1.508,46	2.126,69	2.265,76
OTSAGABIA	IKASTETXE PUBLIKOA	1.728,25	2.965,76	3.830,17
OLAZTI	DOMINGO BADOS	2.206,62	3.996,93	8.708,28
ERRIBERRI	PRINCIPE DE VIANA	5.748,97	8.277,58	7.433,09
ORKOEN	AUZALAR	3.111,65	6.479,52	7.567,47
ORKOEN	SAN MIGUEL	5.270,80	8.843,70	2.911,96
ORONAZ	IKASTETXE PUBLIKOA	1.340,38	1.933,30	2.210,35
OTEITZA	SAN SALVADOR	1.702,39	2.409,16	8.780,58
IRUÑA	AMAIUR IKASTOLA IP	5.723,31	8.522,20	8.292,89
IRUÑA	AZPILAGAÑA	5.361,30	9.961,65	11.717,14
IRUÑA	BERNART ETXEPARE	7.132,57	10.961,80	14.632,53
IRUÑA	BUZTINTXURI IP	4.895,86	11.959,21	15.084,02
IRUÑA	CARDENAL ILUNDAIN	10.028,67	16.104,59	14.356,79
IRUÑA	DOÑA MAYOR DE NAVARRA	7.902,77	14.765,44	8.253,44
IRUÑA	EL LAGO DE MENDILLORRI	5.197,99	6.663,12	5.833,26
IRUÑA	ELORRI IP	4.339,91	5.803,84	8.808,49
IRUÑA	ERMITAGAÑA	5.723,31	9.378,27	6.067,50
IRUÑA	GARCIA GALDEANO	3.525,38	6.086,13	8.669,55
IRUÑA	HEGOALDE IKASTOLA IP	4.882,93	6.879,34	5.419,45
IRUÑA	ITURRAMA	3.745,18	6.630,57	6.583,96
IRUÑA	JOSE M ^o HUARTE	3.835,68	6.707,16	5.933,24
IRUÑA	MENDIGOITI	4.898,22	4.851,56	8.388,77
IRUÑA	MENDILLORRI	5.387,16	9.353,82	3.917,13
IRUÑA	NICASIO DE LANDA	2.103,14	3.338,24	5.004,49
IRUÑA	PADERBORN VÍCTOR PRADERA	3.667,60	5.115,50	15.077,74
IRUÑA	PATXI LARRAINZAR	10.907,84	15.185,39	9.152,77
IRUÑA	ROCHAPEA	6.214,61	11.802,08	10.773,28
IRUÑA	SAN FRANCISCO	6.279,26	10.079,57	17.531,82
IRUÑA	SANDUZELAI	12.196,51	24.398,79	13.735,45
IRUÑA	SAN JUAN DE LA CADENA	5.930,18	10.178,43	7.812,83
IRUÑA	SANDUZELAI	6.382,69	7.675,29	5.389,98
IRUÑA	VÁZQUEZ DE MELLA	4.288,19	6.717,47	13.983,82
AZKOEN	JUAN B. IRURZUN	8.528,91	14.756,56	2.110,61
PITILLAS	IKASTETXE PUBLIKOA	1.120,59	1.544,34	8.386,80
GARES	IKASTETXE PUBLIKOA	6.305,12	8.701,42	2.957,11
ARRADA	XIMENEZ DE RADA	1.288,67	2.452,61	7.909,37
RIBAFORADA	SAN BARTOLOMÉ	5.141,51	8.928,45	3.771,84
ERRONKARI	JULIÁN GAYARRE	1.818,75	2.559,10	1.342,67
ZARE	SAN NICOLÁS	887,87	1.212,97	1.249,91
SALDIAS	IKASTETXE PUBLIKOA	836,15	1.212,97	11.328,99
SAN ADRIÁN	ALFONSO X EL SABIO	8.050,53	12.683,75	10.560,26

HERRIA	IKASTETXEA	2014an, guztira	2015ean, guztira	2016an, guztira
ZANGOZA	LUIS GIL	5.994,82	8.750,32	2.557,42
SANTAKARA	NTRA.SRA.DE LA ASUNCIÓN	1.430,88	2.139,18	22.296,68
SARRIGUREN	SARRIGUREN IP	9.278,79	21.359,26	4.179,00
SARTAGUDA	NTRA. SRA. DEL ROSARIO	1.650,68	2.529,76	2.646,57
SESMA	VIRGEN DE NIEVAS	2.025,62	2.961,08	3.105,20
SUNBILLA	IKASTETXE PUBLIKOA	1.792,90	2.745,98	7.782,75
TAFALLA	MARQUÉS DE LA REAL DEFENSA	5.878,46	8.816,48	12.529,25
TUTERA	ELVIRA ESPAÑA	7.455,80	14.543,24	9.155,07
TUTERA	GRISERAS	6.511,98	11.129,59	11.363,09
TUTERA	HUERTAS MAYORES	5.102,72	9.539,08	9.479,81
TUTERA	MONTE SAN JULIÁN	5.930,18	9.696,56	3.695,58
TUTERA	VIRGEN DE LA CABEZA	2.489,12	0,00	1.231,44
UHARTE ARAKIL	SAN MIGUEL	1.340,38	2.355,93	2.312,55
UXUE	IKASTETXE PUBLIKOA	862,01	1.221,66	1.785,54
URDIAIN	URDIAINGO HERRI ESKOLA	1.495,53	2.232,62	4.648,39
URROTZ	IKASTETXE PUBLIKOA	1.211,09	1.822,48	6.539,80
VALTIERRA	FELIX ZAPATERO	3.486,60	5.910,27	7.127,80
VIANA	RICARDO CAMPANO	4.184,76	6.859,31	3.475,83
VILLAFRANCA	EL CASTELLAR	4.339,91	7.844,14	8.448,61
VILLATUERTA	SAN VEREMUNDO	1.896,33	2.842,13	9.951,25
ATARRABIA	ATARGI	5.619,88	8.083,81	2.116,52
ATARRABIA	LORENZO GOICOA	6.318,05	11.694,56	12.541,83
ZIGA	IKASTETXE PUBLIKOA	1.081,80	1.434,61	10.558,79
ZIZUR NAGUSIA	CAMINO DE SANTIAGO (1)	8.201,45	11.438,18	8.325,56
ZIZUR NAGUSIA	CATALINA DE FOIX	7.701,45	11.801,67	3.935,61
ZIZUR NAGUSIA	ERRENIEGA	6.783,49	8.288,60	3.442,25
ZUBIRI	XABIER ZUBIRI	2.581,57	3.318,55	0,00
ZUGARRAMURDI	URDAX-ZUGARRAMURDI (1)	2.233,40	3.327,24	0,00
AGOITZ	DBHI	4.071,00	4.170,23	4.877,55
AZAGRA	"REYNO DE NAVARRA" DBHI (2) (2)	7.002,13	6.599,26	6.928,25
ZARRAKAZTELU	"VALLE DEL ARAGÓN" DBHI (2) (2)	7.479,65	7.898,84	8.210,87
CORTES	"BARDENAS REALES" DBHI (2) (2)	7.048,60	7.538,60	7.502,73
DONEZTEBE	"MENDAUR" DBHI (2)	6.071,27	5.908,16	6.466,99
GARRALDA	DBHI	2.054,43	2.044,31	2.003,67
LARRAINTZAR	DBHI	3.050,92	3.133,02	3.177,44
MENDABIA	"JOAQUÍN ROMERA" DBHI (2) (2)	6.334,47	6.313,57	6.938,82
NOAIN	"ELORTZIBAR" DBHI (2) (2)	10.732,90	11.388,72	11.332,27
OTSAGABIA	DBHI	1.797,80	1.827,00	1.788,40
ERRONKARI	"RONCAL" DBHI	2.007,25	2.009,28	2.006,02
VIANA	"DEL CAMINO" DBHI	3.110,25	3.523,27	3.781,09

Galdera, Aragoi ibaiaren ibarreko udalerrietan errepideak hobetzeko aurreikusitako jarduketei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Carlos García Adanero jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Aragoi ibaiaren ibarreko udalerrietan errepideak hobetzeko aurreikusitako jarduketei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko azaroaren 4ko 129. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Carlos García Adanero jaunak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, galdera egin du (9-16/PES-00379) Aragoi Ibarreko errepideetan aurreikusitako jarduketei buruz. Hona Garapen Ekonomikorako kontseilariak, zeinak behean sinatzen baitu, ematen dion erantzuna:

Une honetan ez dago aurreikusita inongo jarduketa berriazko eta zehatz egitea Aragoi Ibarreko errepideetan; izan ere, ez da horretarako aurre-

kontu-zuzkidurarik aurreikusi 2017ko aurrekontuen proiektuan; hori dela eta, jarduketak mugatuko dira errepide horien ohiko kontserbazio- eta mantentze-lanetara.

Aipatu beharra dago 2010-2018 urteetarako III. Errepide Planean zenbait jarduketa aurreikusita zeudela NA-128 errepidean (Caparroso-Mélida, 34. jarduketa), NA-1240 errepidean (Caparroso-Traubuenas-Santakara, 65. jarduketa) eta NA-5330 errepidean (Melida eta Santakara arteko zubian hobekuntzak egitea, 135. jarduketa). Halere, jakina den bezala, 2010. urtetik aurrera ezin izan da planeko inongo obra lizitatu,

Aurrekontuan diru nahikorik ez zegoelako. Aipatzeko moduko salbuespen bakarrak Ledeko zubiaren konponketa eta Izurdiagako trenbide-pasagunea kentzea izan dira.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2016ko azaroaren 23an

Garapen Ekonomikorako kontseilaria: Manuel Ayerdi Olaizola

Galdera, Nafarroako Erriberan osasun garraioa kudeatzen duen enpresari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Erriberan osasun garraioa kudeatzen duen enpresari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko azaroaren 11ko 133. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko abenduaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak galdera egin du (9-16/PES-00380) eskatuz "idatziz erantzuteko Nafarroako Erriberan osasun garraioa kudeatzen duen enpresarekin zerikusia duten zenbait galderari". Hauxe da Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak horren gainean informatu beharrekoa:

Osasun Departamentuak ba al daki zein diren Nafarroako Laneko eta Gizarte Segurantzako

Probintzia Ikuskatzaitzak Nafarroako Erriberan osasun arloko garraioa kudeatzen duen enpresari planteatutako errekerimenduak? 486/1997 Errege Dekretua, apirilaren 14koa, lantokietako gutxieneko segurtasun eta osasun baldintzak ezarzen dituena.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak jakin zuen lan-ikuskatzaitzak enpresara bisita egin zuela maiatzaren 31n, enpresak berak eman baitzion informazio hori.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak enpresaren bitartez jakin du Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaitzak ikuskapen-bisita egin zuela uztailaren 27an, eta urriaren 20an errekerimendua egin zuela.

Osasun Departamentuak uste al du Erriberako garraio-zerbitzuaren enpresa esleipen-hartzaileak baldintza egokiak biltzen zituela lantokian?

Lan-ikuskatzaitzaren errekerimenduak, ikuskatzaitza horri baitagokio ebaluazio hori egitea, orokorrean aipatzen ditu Lantokietako gutxieneko segurtasun eta osasun baldintzak ezarzen dituen apirilaren 14ko 486/1997 Errege Dekretuaren V. eranskineko zenbait atal, baina aurkitutako gabeziak jasota utzi gabe.

Osasun Departamentuak ba al daki langile bartzuk lanaldi arrunta baino luzeagoan aritu direla 2015eko urritik 2016ko irailera arte, ordu horiek aparteko ordu gisa kotizatu gabe?

Osasun Departamentuak jakin du Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaitzaren errekerimenduaren bitartez puntu horri buruz aipatzen dena, enpresak igorri baitio, baina gaur den egunera arte ez du jakin Gizarte Segurantzaren Diruzaintzak hori berresten duen ebazpenik eman duen.

Zer neurri hartuko ditu Osasun Departamentuak sortu den egoera horri begira?

Gizarte Segurantzaren Diruzaintzaren ebazpenaren zain gaude, espedientea nola amaitzen den ikusteko. Une horretan, bidezkoa bada, balizko neurriak baloratuko dira.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko abenduaren 2an.

Osasuneko kontseilaria: Fernando Dominguez Cunchillos

Galdera, EZBetako babes-unitateetako 2016ko diru-laguntzen deialdiari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ana San Martín Aniz andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, EZBetako babes-unitateetako 2016ko diru-laguntzen deialdiari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko azaroaren 11ko 133. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko abenduaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Ana San Martín Aniz andreak galdera egin du enplegu zentro berezietako babes-unitateetarako diru-laguntzen deialdiari

buruz (9-16/PES-00381). Hona Nafarroako Gobernu Eskubide Sozietateko kontseilariaren erantzuna:

Enplegu zentro berezietako babes-unitateetarako diru-laguntzak emateari buruzko ebazpenak 2016ko azaroaren 24an onetsi dira. Behin diru-laguntzak emateari buruzko ebazpena onetsita, diru-laguntzen ordainketa izapidetuko da.

Atzerapena heldu da 2015ean deialdi honetan izapidetutako espedienteen azterketatik. Azterketa hori egin da Kontu-hartzaitza Delegatuak horretara premiatuta, zeren eta akatsak aurkitu baitira Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen martxoaren 26ko 626/2015 Ebazpenaren bitartez onetsitako diru-laguntzak ematerakoa. Espediente horien likidazioa irailaren amaieran onetsi zen, eta data horretatik aurrera, antzeko

irizpideak erabiliz, 2016ko emakidak aztertu eta onetsi dira.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2016ko azaroaren 30ean.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: Miguel Laparra Navarro

Galdera, PIN bekadunei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mónica Doménech Linde andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, PIN bekadunei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko azaroaren 11ko 133. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentaldeari atxikitako foru parlamentari Mónica Doménech Linde andreak galdera egin du (9-16/PES-00382) PIN bekadunei buruz. Garapen Ekonomikorako kontseilariak ulertu du Doménech andreak "Nazioarteko Praktikak" izeneko mugikortasunerako deialdiei buruz galdetu nahi duela, eta horri dagokionez ohore du honako informazio hau ematea:

Deialdi hori 2011n ezarri zen lehenengo aldiz, eta ordutik 3 emanaldi izan ditu, 2014an, 2015ean eta 2016an, Europako Gizarte Funtsaren Gazte

Enplegurako Programa Operatiboaren babesean, funts hori baita jarduketa hori kofinantzatzen duena.

Deialdiak ez ditu bere oinarri arautzaileetan jasotzen itzuleraren baldintza, eta joan den urtera arte, ez zuen biltzen praktikak bukatu eta sei hilabetera bekadunen jarraipena egin behar izatearena (ikus "Jarraipena" taula).

Anfitrioi diren enpresei nahiz herrialde har-tzaileei buruz eta betetako eginkizunei buruz egindako galderen erantzunak argitasun handiagoz emateko, bere garaian beka emateko ebazpenen eranskinetan argitaratutako taulak erantsi ditugu, munta handiko informazioa biltzen baitute.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko azaroaren 18an

Garapen Ekonomikorako kontseilaria: Manu Ayerdi Olaizola

(Oharra: Aipatutako eranskina eskuragarri dute foru parlamentariak, parlamentu-kudeaketako Ágora sisteman).

Galdera, Ministerioak errebaliden gaiari heltzeko deitutako bilerara ez joateko Hezkuntza Departamentuak izan dituen arrazoiei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Ministerioak errebaliden gaiari heltzeko deitutako bilerara ez joateko Hezkuntza Departamentuak izan dituen arrazoiei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko azaroaren 18ko 136. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko abenduaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeak 9-16/PES-00383 idatzizko galdera aurkeztu du. Hona hemen Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Galderan aipatzen den deialdia Hezkuntzako Konferentziako Hezkuntza Batzorde Orokorrena da. Batzorde horietara ez zaie deitzen autonomia erkidegoetako kontseilariei, zuzendari nagusiei baizik.

Galderaren xedeari dagokionez, Hezkuntzako zuzendari nagusia gonbidatu zuten hitzordu horretara, baina deialdia denbora-tarte oso laburrekin egin zen, eta batzorde hori bildu behar zen egun bererako programatuta eta deituta zegoen Nafarroako Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako zuzendarien bilera; eta behar-beharrezkoa zen zuzendari nagusia azken bilera horretan egotea.

Hezkuntza Ministerioaren deialdiak eman zuen tarte laburra zela eta, ez zen bidezkoa zuzendariekiko hitzordua aldatzea. Ministerioari egoera horren berri eman zitzaion. Hala eta guztiz ere, batzordearen bileran parte hartu genuen beste erkidego batzuekin batera egindako ekarpenen bitartez. Geroztik, azaroaren 21ean eta abenduaren 2an, batzorde hori beste bi aldiz deitu da, eta zuzendari nagusia normaltasun osoz joan ahal izan da haietara.

Kontseilaria, bestalde, bere karguari zegokion bilerara joan zen, hain zuzen ere azaroaren 28rako deitu zenera.

Gainerako galderari dagokienez, Nafarroa deitu zaion bileretara joan izan da, zeren eta oso positibotzat jotzen baita errebaliden aurkako bere irizpidea azaldu ahal izatea. Irizpide hori autonomia erkidego gehienek partekatu izan dute, halako moduz non gaur egun ikasturte honetarako eta hurrengoetarako Estatuko arauditik "errebalida" kontzeptua erretiratu baita, hain zuzen ere erregulartasunez parte hartu dugun mahaietako kideon arteko adostasunaren ondorioz.

Estatuko hezkuntza erkidegoak datozen hila-beteetan hezkuntzari buruzko adostasun edo itun bat bilatuko du. Departamentuak prozesu horretan parte aktiboa hartzeko asmoa du, ikasleen eta Foru Erkidegoko hezkuntzako eragileen interesaren ordezkari.

Iruñean, 2016ko abenduaren 15ean.

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

Galdera, Odol Bankuko zuzendariaren kargu-uzteari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Begoña Ganuza Bernaola andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Odol Bankuko zuzendariaren kargu-uzteari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko azaroaren 18ko 136. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko abenduaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Begoña Ganuza Bernaola andreak idatziz erantzuteko galdera bat egin du, jakin nahi baitu zergatik kendu duten kargutik

Odol Bankuko zuzendaria (9-16-PES-00384). Hona Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariaren informazioa:

Nafarroako Odol Bankuko zuzendaria kargutik kentzeko arrazoiak lotuta daude zenbait alderdi funtzionalekin, harekiko konfiantza galtzea ekarri dute. Alderdi funtzional horiek dagozkien aipatutako Odol eta Ehun Bankuaren jardueraren ondorioz sortzen diren kobrezko hondakin biologikoen kudeaketa administratiborako erabili dituen prozedurei.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko abenduaren 1ean.

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

Galdera, Zangozako eskualdeko Ginekologia Zerbitzuaren egoerari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Begoña Ganuza Bernaola andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Zangozako eskualdeko Ginekologia Zerbitzuaren egoerari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko azaroaren 18ko 136. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko abenduaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Begoña Ganuza Bernaola andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (9-15/PES-00385), informazioa nahi baitu Zangozako eskualdeko Ginekologia Zerbitzuaren egoerari buruz. Hauxe da Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horren gainean informatu beharrekoa:

Zangozako ELZ 1999an hasi zen lanean. Zangozako Azpiunitatea Azpilagañako ELZren menpe

sortu zen. Hasieratik ezarri zen Azpilagañako ginekologo batek astean bi aldiz bisita egitea, bai eta emagin batek laguntza ematea ere.

Jotzen da profesional bakoitzeko ratioa egokia dela. Gaur egun, kontsulta bakoitzean 20 pertsona artatzen dira, astean bi kontsultatan; halere, egia da beste jardura batzuk egiteak (zaintza-aldiak, ebakuntzak, saio klinikoak) eragin dezaketela kontsulta horiek gutxiago izatea.

Azken bi urteetan honako hauek egin dira:

– 2015. urtea: 59 lehen bisita eta 794 azterketa.

– 2016. urtea: 64 lehen bisita eta 914 azterketa, azaroaren 30ean.

Aurten hasita, aurreikusta dago plantilla egonkortzea eta kontsulta kopurua handitzea.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko azaroaren 28an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

Galdera, Nafarroako ikastetxe itunduetako irakasleen prestakuntzari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako ikastetxe itunduetako irakasleen prestakuntzari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko azaroaren 18ko 136. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko abenduaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldea 9-16/PES-00386 idatzizko galdera aurkeztu du. Hona hemen Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Lehenengo galderari dagokionez, esan behar dut joan den urriaren 26an zirkular bat igorri zi-

tzaiela ILZetako aholkulari guztiei, eta gogorazi zitzaie ez zezatela inongo irizpiderik ezar ikastetxe publikoak ikastetxe itunduen aurretik lehenesteko, ez eta alderantziz ere, Hezkuntza Departamentuak antolatutako prestakuntza-jardueretan. Horrekin, bete egin nahi da irakaskuntza itunduko sektorearen prestakuntza dela-eta ezarritakoa. Sektore hori, izan ere, sartuta dago "Irakaskuntza pribatuaren arloan jardun eta osotara edo hein batean funts publikoekin aritzen diren enpresen VI. lan hitzarmenean".

Bigarren galderari dagokionez, sekula ez zaie ikastaro bat ukatu sare itunduko irakasleei; besterik da jarduera jakin baterako hautapen-irizpideak aplikatuta posturik gabe geratu izana, prestakuntza-jarduerak dauzkaten kupoak direla eta.

Iruñean, 2016ko abenduaren 15ean

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

Galdera, gatazka egoeran dauden adingabeei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mónica Doménech Linde andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, gatazka egoeran dauden adingabeei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko azaroaren 18ko 136. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko abenduaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Mónica Doménech Linde andreak galdera bat egin du (9-16/PES-00208), gatazka egoeran dauden adingabeei buruz (9-16/PES-00387). Hona Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako kontseilariaren erantzuna:

Hasierako gaiak:

Lehenengo hurbilketa bat eginez eta Nafarroako Haurrentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzko 15/2005 Foru Legean jasotakoaren arabera (2005), "gatazka sozialeko egoeran dauden adingabeak dira, babes sisteman sartuak, ez egokitzapen larriarengatik beren buruei edo beste-
ei kalte egiteko arriskuan egon daitezkeenak".

Bistan da Haurren Babes-sistemaren testuinguruan esku hartu behar direneko egoeren eguneroko errealitateak zabal gainditzen duela definizio horrek hartzen duen esparrua. Hala eta guztiz ere, jabetuta gaude nerabezaroan gatazka sozial larri eta iraunkorraren kontzeptuari buruzko hurbilketa berri bat egiteko zaintasunez, hura soilik jokabide-adierazpenetara mugatzeaz haratago joanda. Hala eta guztiz ere hurbilketa kontzeptual berri bat proposatzen dugu, zeinaren identitate-zeinuak

oinarrituko baitira haren izaera konplexu eta dimentsio anitzekoan. Esaten dugu nerabezaroko gatazka sozialeko egoerak fenomeno konplexu bat direla zeren eta beraien sorreran eta garapenean aldagai ugari baitaude, bai eta elkarrekin lotutako elementuak ere, elkarren mendekotasunak dauzkatenak eta eguneroko bizitzaren errutina eta igurikapen arruntak hausten dituztenak. Dimentsio anitzekoa diogu zeren eta zeharkako bihurtzen ari baita, gizabanakoaren eta lehen eta bigarren mailako sozializatzeko-egitura edo sistema desberdinen arteko harreman jarraitu eta bi norabidekoaren ondorioz.

Adingabeekin hartu beharreko neurrien larritasunaren eskalan, egoitza-harrera da eragin eta inplikazio instituzional handiena daukan modalitatea, bai eta kostu ekonomiko handiena duena eta modu murriztaileagoan erabiltzen dena ere. Behaketa eta harrera zentroan, balorazio bat egiten da, non baztertzeko baita adingabearen arazoaren traktura egitea bere inguruetik bereiztea inplikatzeko ez duten beste modalitate batzuk erabiliz. Familiaren eta Adingabeen Zuzendariordetzak mota desberdinetako egoitza-harrerak sustatu edo eratuko ditu, eta bide administratiboa erabiliz egiten du hori, aurrez babesgabetasuna deklaratu, edo gurasoek zaintza beren borondatez lagaz.

Gatazka sozial larriko edo babesgabetasuneko egoeren erantzunak eskatzen du egoitza-harrera inplikatzeko duten babes-neurriak ezartzea, dela gurasoek zaintza beren borondatez lagaz, dela babesgabetasun deklarazioa egin eta entitate publiko arduradunak zaintza bere gain hartuz.

Gatazkan daudenak babesteko egoitza-baliabideak modu sekuentzialean daude antolatuta, presente dauden adierazle larritasunaren arabera eta sortutako kaltearen eta beha daitezkeen jokabidearen arabera.

Behaketa eta harrera zentroa (BHZ).

Oinarrizko egoitza-harrera (OEH).

Egoitza harrera espezializatua (EHE).

Behaketa eta harrera zentroa (BHZ).

Urgentziazko egoitza-harrerarako programa bat da, iraupen laburrekoa. Edozein jatorritako 12 eta 18 urte bitarteko neska-mutilei zuzenduko zaie, baldin eta daukaten egoera dela-eta berehalako esku-hartzea egin behar bada. Horren helburua da artatutako adingabeen egoera pertsonal, familiar eta soziala aztertu eta baloratzea, behatutako beharretarako egokiena den babes-neurria zehazteko behar adina elementu edukitzeko helburuarekin. Programa horretan gutxienez ere 60 eguneko egonen dira.

Oinarrizko egoitza-harrerako (OEH) programa.

Oinarrizko izaera duen egoitza-programa bat da. Programa hau ezartzen da egoitza-harrerako edozein programaren erdigune bezala, eta berez erantzun behar die 12 eta 18 urte arteko neska-mutil nerabeen beharrei, haien jatorria edozein dela ere, baldin eta izaera espezializatuko egoitza-programen edo autonomia-programen esparruan artatuak izateko beharra ez badute.

Egoitza harrera espezializatuko (EHE) programa.

Izaera espezializatua duen egoitza-programa bat da, jokabide-arazo larriak dituzten nerabeei arreta ematera zuzendua: 12 eta 18 urte arteko nerabeak artatuko ditu, edozein jatorritakoak, baldin eta jokabide bereziki disruptiboak badituzte, haiek oinarrizko programa orokorraren esparruan artatzea ezinezko egiten dutenak. Programa honako honetan datza: gizarteko eta hezkuntzako esku-hartze bat edo esku-hartze terapeutiko bat, jarrerak aldatzera eta jokabide-arazoak gainditzera bideratua. Nagusiki aldi baterako izaeraz aplikatuko da eta helburu izanen du gero oinarrizko programa orokorrean edo/eta emantzipaziorako prestatzeko programan sartu ahal izatea.

1) Zein dira gatazka egoeran dauden adin txikikoen kopuruaren datuak? Zenbat dira egoitza-harreran, espezializatuan zein oinarrizkoan, dauden adin txikikoak?

Gatazka sozialean dauden adingabeak, egoitza-harreran daudenak		
Urtea	Sartu diren kasuak	Artatu diren kasuak
2014	110	153
2015	115	157
2016	108	160

2) Zein dira gatazka egoeran dauden adin txikikoen eta behaketa- eta harrera-zentroetan egon diren adin txikikoen gaineko datuak?

Gatazka sozialeko egoeran dauden adingabeak, BHZetan izan direnak		
Urtea	Sartu diren kasuak	Artatu diren kasuak
2014	119	145
2015	114	132
2016	125	150

3) Zenbat dira, zehazki, baliabide bakoitzerako erabilgarri dauden postuak, eta zein da egungo egoera laguntza teknikoko kontratuetan, egoitza-harrera espezializatu eta oinarritzorako eta behaketa- eta harrera-zentroetarako?

Egoitza-harreraren egoera Nafarroan:

Gaur egun, honako egoitza-postu hauek daude:

- Ilundain Haritz Berri fundazioa (gatazkan daudenentzako postuak):

** Gatakan daudenentzako BHZ, 13 eta 18 urte bitartekoentzat: Itundutako 15 postu.

** OEH: 10 postu (gaur egun, mutilentzat).

Hurrengo lizitaziotik aurrera (esleitzeko prozesuan):

** BHZ: 18 postu. 3 postu gehiago izanen dira.

** OEH: 18 postu (mistoak). Hau da, gaur arte baino 8 gehiago, eta misto bilakatuak.

** EHE: 8 postu (misto) sortu berriak.

- Nafarroa Mugarik Gabe elkarteak (gatazkan daudenentzako postuak):

** OEH: 16 postu Félix Etxegaray Egoitzan (mistoak).

13 postu Gaztebide Egoitzan (mistoak).

4 postu Urdazubi Egoitzan, haurdun dauden amentzat.

** EHE: 5 postu Gurimendi Egoitzan (mistoak).

- Xilema Fundazioa:

** Zailtasunetan dauden 7-12 urteko adingabeentzako BHZ Itundutako 12 postu.

** OEH: 40 postu misto 5 babes-pisutan, Iruñean eta Iruñerrian.

** EHE: 5 postu Ermitagañako babes-pisu batean.

- Nafarroako "Nuevo Futuro" elkarteak:

** OEH: 64 postu misto Iruñeko eta Iruñerriko 8 babes-pisutan eta Tuterako beste pisu batean (guztira, 9 pisu).

Hurrengo lizitaziotik aurrera (esleitzeko prozesuan):

** EHE: 5 postu misto (sortu berriak).

Hau da, gaur egun guztira 184 egoitza-postu daude (147 OEHetan, 10 EHE-etan eta 27 BHZetan). Gainera, datozen lizitazioetan, 24 postu gehiago sortuko dira (8 OEHetan, 13 EHE-etan eta 3 gatazkan daudenentzako BHZetan), eta horrekin Nafarroan 208 postu egonen dira erabilgarri egoitza-harreran, BHZetan, OEHetan eta EHE-etan.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2016ko abenduaren 13an.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: Miguel Laparra Navarro

Galdera, Bardeako Batzarrearen aurrean aurkeztutako salaketei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Luisa De Simón Caballero andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Bardeako Batzarrearen aurrean aurkeztutako salaketei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko azaroaren 18ko 136. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko abenduaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Marisa de Simón Caballero andreak idatziz erantzuteko galdera egin du jakin nahi baitu azken 15 urte hauetan Bardeako Batzarreak zenbat salaketa egin dituen eta zenbat izapidetu diren dagokion kontseilari-tzaren aurrean (9-16/PES-00388). Hauxe da Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilariaren erantzuna:

Errege Bardeako Parkeak Natur Baliabideak Antolatzeke Plana du araubide, Nafarroako Gobernuak behin betikoz irailaren 7ko 266/1988 Foru Dekretuaren bidez onetsi zuena, hain zuzen.

Nafarroako Errege Bardea natur parke deklaratu zen duen apirilaren 6ko 10/1999 Foru Legeak

ezartzen du natur parkearen kudeaketa Errege Bardeako Komunitateari dagokiola, eta berak izanen dituela indarra duen legediak Natur Parkeetako kudeaketa organoei esleitzen dizkien eskumen eta ahalmen guztiak.

Aurrekoarekin bat, Basozaintzak, Foruzaingorak edo SEPRONAK salaketa bat egiten dutenean Nafarroako Naturguneei buruzko ekainaren 17ko 9/1996 Foru Legearen ustezko arau-hauste bategatik, zuzenean bidaltzen diote Bardeako Komunitateari, aipatutako foru legeko 34. artikuluan xedatutakoa aplikatuz.

Ingurumeneko eta Lurraldearen Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiko Zerbitzu Juridikoko Ingurumeneko Araubide Juridikoaren Atalaren datu basea 2013tik aztertuta, ezagutzera eman didate jasota dagoela araubidea hausteagatiko salaketa bat baizik ez zaiola igorri Bardeako Komunitateari, aipatutako araudia aplikatuz azken horren eskumeneko gaia zelakoan. Ez dugu salaketa horren kopiarik erantsi, zeren eta departamentuan kopiarik ez baitago.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko abenduaren 14an

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilaria: Isabel Elizalde Arretxea

Galdera, Iruñeko espetxeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Iruñeko espetxeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko azaroaren 18ko 136. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko abenduaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak idatziz erantzuteko galdera batzuk egin ditu (9-16/PES-00389) . Hona Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariaren erantzuna:

- Zenbat presorendako edukiera du Iruñeko espetxeak?
- Zenbat preso daude gaur egun?
- Zein da presoen urteko batezbestekoa?

Erantzuna:

Nafarroako Gobernuko Justizia zuzendari nagusiaren 2016ko abenduaren 5eko ofizioa erantsi dut, non erantzuna ematen baitzaie egindako galderari.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko abenduaren 12an

Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilaria: M^a José Beaumont Aristu

Nafarroako Gobernuko Justizia zuzendari nagusiaren ofizioa

EH Bilduren parlamentu-galdera, Iruñeko espetxearen edukierari buruzkoa.

1.- Zenbat presorendako edukiera du Iruñeko espetxeak?

504 ziega dauzka, eta 120 ziega osagarri.

Ziegak partekatzen badira, 1000 preso hartzeko tokia dauka.

2.- Zenbat preso daude gaur egun?

294 preso daude, espetxeko arduradunek emandako azken informazioaren arabera. 2015ean baino ehuneko 17,8 gutxiago dira.

3.- Zein da presoen urteko batezbestekoa?

Urteko batezbestekoa % 30ekoa da. Sekula ez da egon 350 preso baino gehiago, hori izan baita gehienekoa.

Hiriaren erdigunean zegoen Donibaneko espetxe zaharrea zegoen preso kopuruaren antzekoa da hori, igoera txiki batekin.

Iruñean, 2016ko abenduaren 5ean.

Nafarroako Gobernuko Justiziako zuzendari nagusia: Lurdes Aldave Villanueva

